**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2022SDBD0005
**Gaia/**Asunto: **ERRENTERIAKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUETAN ERALDAKETA DIGITALA ETA TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO DIRU-LAGUNTZAK** / SUBVENCIONES PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA EN EL COMERCIO, HOSTELERÍA Y SERVICIOS DE ERRENTERIA
**Eskatzailea/**Solicitante**:** SDBD **NAN(IFK)/**DNI(NIF): 90909090A
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA

# ERRENTERIAKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUETAN ERALDAKETA DIGITALA ETA TRANTSIZIO EKOLOGIKOA BULTZATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

# BASES ESPECÍFICAS DE SUBVENCIONES DE APOYO EN LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA EN COMERCIO, HOSTELERÍA Y SERVICIOS DE ERRENTERIA

## 1.- Aurrekariak

Teknologia berriek kontsumo-ohiturak aldatu dituzte. Gainera, COVID-19k sortutako egoerak merkataritza digitala bizkortu du, eta, aldi berean, tokiko hiri-ehuneko enpresa zaurgarrienak arriskuan jarri ditu.

Era berean, TicketBai ezartzeko, beharrezkoa izango da hiri-ekonomia osoak gutxieneko azpiegitura teknologiko bat izatea diru-sarreren jarraipena eta kontrola egiteko.

Bestalde, energiaren prezioaren igoera eta kanpoko energia berriztaezinekiko zein materialekiko dugun mendekotasun handia direla medio, egungo krisialdi klimatikoa ere kontuan hartuta, premiazkoa da trantsizio ekologiko justu baterako tokiko estrategiak bultzatzea.

Estrategia horiek tokiko esparru batean funtsezkoak diren sektore ekonomikoei lagundu behar diete, hala nola merkataritzari, zerbitzuei eta ostalaritzari. Sektore horiek digitalizazioa eta jasangarritasuna ardatz estrategiko gisa identifikatzen dituzte urteotan landu dituzten dokumentuetan, esate baterako, Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezian (PERCO) edo Errenteriako Ostalaritzaren Plan Estrategikoan.

Errenteriako Udalak jakin badaki egoera

## 1.- Antecedentes

Las nuevas tecnologías han contribuido al cambio en los hábitos de consumo, si bien la situación generada por el COVID-19 ha acelerado el comercio digital, al tiempo que ha puesto en peligro a las empresas más vulnerables del tejido urbano local.

Igualmente la implementación de TicketBai va a requerir que toda la economía urbana disponga de una infraestructura tecnológica mínima para hacer un seguimiento y control de sus ingresos.

Por otro lado, el incremento del precio de la energía, la fuerte dependencia exterior de energías no renovables y materiales, así como el marco actual de crisis climática, urgen a impulsar también estrategias de proximidad para una transición ecológica justa.

Estas estrategias deben acompañar a sectores económicos tan esenciales en un marco local como son el comercio, los servicios y la hostelería, quienes identifican la digitalización y la sostenibilidad como ejes estratégicos en los documentos que han ido trabajando estos años, tales como el Plan Especial de Revitalización Comercial (PERCO) o el Plan Estratégico de la Hostelería de Errenteria.

El Ayuntamiento de Errenteria consciente de la

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

konplexua bizi dutela sektore horiek, oro har, eta zehazki, tokiko eta hiriko ekonomia osatzen duten mikroenpresek; hori horrela, neurriak ezartzen lagundu nahi die eraldaketa digitala eta trantsizio ekologikoa bultzatzeko, horrek bidea emango baitie salmenta-kanalak zabaltzeko, kontsumitzaileen eskakizun berriak aztertzeko, eta energia nahiz materialak aurreztu eta eraginkortasunez erabiltzea sustatzeko.

compleja situación que están viviendo dichos sectores, concretamente aquellas micro empresas que conforman la economía local y urbana, quiere acompañarles en la implementación de medidas para la transformación digital y la transición ecológica, como una manera de ampliar los canales de venta, explorar nuevas demandas de las personas consumidoras e impulsar el ahorro y la eficiencia de energía y materiales.

Azken batean, neurri horien helburua da, sektore horiek modernizatzeaz gain, tokiko ekonomia erresilienteagoa eta jasangarriagoa izatea.

Estas medidas en definitiva persiguen, no solo la modernización de estos sectores, sino hacer que la economía local sea más resiliente y sostenible.

**2.- Dirulaguntzaren xedea**

Oinarri espezifiko hauek arautzen dute dirulaguntzak ematea, lehiarik gabeko modalitatean, Errenteriako saltokiek, zerbitzuek, ostalaritzak, eta sektore horietako elkarteek egiten dituzten ekintzetarako, digitalizazioaren eta trantsizio ekologikoaren esparruan.

**Digitalizaziotzat** hartuko da enpresa bat teknologiaren bidez berrasmatzeko prozesua, bezeroen eskakizun berrietara egokitzeko eta haiekiko harremana hobetzeko. Horretarako, tresna teknologikoak ezartzen ditu eta eskura dituen bitarteko digital guztiez baliatzen da negozio-eredua berriro diseinatzeko, bere estrategia balizko kontsumitzaileei zabaltzeko, eskainitako zerbitzuak edo produktuak birdefinitzeko eta enpresa-kultura eguneratzeko.

**Trantsizio ekologikoaren** kontzeptuari dagokionez, negozioan sartu beharreko ekintza edo ekintza-multzoa da, ahalik eta baliabide gutxien erabiliz emaitzarik onenak lortzea ahalbidetzen duena. Ekintza horiek sustatuko dute energia aurreztea, efizientzia energetikoa,

**2.- Objeto de la subvención**

Las presentes bases específicas regulan la concesión de subvenciones en la modalidad de concurrencia no competitiva, de las acciones que comercios, servicios, hostelería y agrupaciones de dichos sectores de Errenteria realicen en el ámbito de la digitalización y la transición ecológica.

Se entenderá por **digitalización**, el proceso por el que una empresa se reinventa a través de la tecnología para adaptarse a las nuevas demandas de la clientela y mejorar la relación con ellos. Para ello, implementa herramientas tecnológicas y se vale de todos los medios digitales a su disposición para rediseñar el modelo de negocio, ampliar su estrategia a potenciales consumidores, redefinir los servicios o productos ofrecidos y actualizar la cultura empresarial.

El cuanto al concepto de **transición ecológica**, se entenderá como la acción o conjunto de acciones a incorporar en el negocio que permitan obtener los mejores resultados empleando la menor cantidad posible de recursos. Estas acciones irán encaminadas a

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

ekonomia zirkularra, hiri-paisaiaren hobekuntza eta/edo kontsumo arduratsu.

impulsar el ahorro y la eficiencia energética, la economía circular, la mejora del paisaje urbano y/o el consumo responsable.

Deialdi honen helburu zehatzak honako hauek dira:

Los objetivos específicos de esta convocatoria son:

- Hiri-ekonomian eten digitala murriztea.

- Reducir la brecha digital en la economía urbana.

- Enpresa horien heldutasun digitalaren maila handitzea, negozioaren eraldaketa digital osoan edo partzialean lagunduz.

- Incrementar el grado de madurez digital de estas empresas, apoyándolas en el proceso de transformación digital total o parcial del negocio.

- Energia aurrezteko eta efizientzia energetikorako neurriak bultzatzea, bereziki energiaren prezioen aldaketen aurrean kalteberenak diren sektore eta negozioetan.

- Impulsar medidas de ahorro y eficiencia energética, especialmente de aquellos sectores y negocios más vulnerables a las variaciones del precio de la energía.

- Negozio horiek salmenta-kanaletan kontsumitzaileei salgaiak banatzeko sistema jasangarriak ezar ditzaten bultzatzea.

- Favorecer que estos negocios implementen en los canales de venta, sistemas sostenibles de reparto de mercancías a personas consumidoras.

- Efizientzia eta materialen eta baliabideen aurrezpena sustatzea negozio-ereduan (ekonomia zirkularra).

-Impulsar la eficiencia y el ahorro de materiales y recursos en el modelo de negocio (economía circular).

- Hiri-ekonomia kontsumo arduratsu eta kontzientearen sustapenaren buru izan dadin bultzatzea (kanpainak, proiektu pilotuak, erakustaldiak, etab.)

- Promover que la economía urbana lidere el impulso del consumo responsable y consciente (campañas, proyectos piloto, demostraciones, etc.)

- Hiri-paisaiaren kalitatea hobetzea: estetika, irisgarritasuna, segurtasuna eta/edo zarata murrizteko neurriak.

- Mejorar la calidad del paisaje urbano: estética, accesibilidad, seguridad y/o medidas para reducir el ruido.

**3.- Dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egozten zaion.**

**3.- Crédito presupuestario al que se imputa la subvención.**

Dirulaguntza honetara bideratutako zenbateko guztia 450.000 € da, aurrekontu-partida honen kontura:

1 0320.471.01.433.00

El importe total destinado a la presente subvención es de 450.000€ con cargo a la siguiente partida presupuestaria:

1 0320.471.01.433.00

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

Esleitutako zenbatekoa agortzen bada, dirulaguntzaren hasierako zuzkidura handitu ahal izango da. Hau eraginkorra izan dadin, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea.

**4.- Onuradunek bete beharreko baldintzak**

Dirulaguntza hauen erregimena aplikatuko zaie soilik baldintza hauek betetzen dituzten enpresa eta norberaren konturako langileei:

1. Haien jarduera nagusia merkataritzakoa, ostalaritzakoa edo zerbitzukoa izatea; eta Errenteriako JEZ erroldan alta emanda egotea, edo haien jardueraren arretako establezimendu nagusia Errenterian egotea.

Deialdi honetan ezarritakoari dagokionez, merkataritza-jardueratzat hartuko da merkatuaren esku jartzea xede horretarako eskuratutako salgaiak edo produktuak, beren horretan eta eraldaketa-prozesu handirik gabe, bai eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizleek, azken kontsumorako ondasunak zuzenean saltzea ere, baldin eta ondasun horiek ekoizteko, merkaturatzeko edo hirugarrenei zerbitzuak eskaintzeko prozesuetan sartuko ez diren ondasunak badira. Baita zerbitzuak ematea ere, horiek azken izaerarekin eskaintzen bazaizkio merkatuari .

1.1. Gainera, salmenta ibiltaria edo ez-sedentarioa ere izan daiteke onuradun (salmenta horren titularrak Errenterian izan beharko du zerga-egoitza), bai eta autotaxi zerbitzuak ere, titularrak Errenteriako udal-lizentzia badu.

1.2. Onuradun izan daitezke, halaber, formalki eratutako elkarteak, baldin eta Errenteriako JEZen alta emandako negozioak soilik ordezkatzen badituzte, elkarte gisa egindako

En el caso de que el importe destinado se agote, se podrá ampliar la dotación inicial de las ayudas, sin que requiera una nueva publicación de la convocatoria para su eficacia.

**4.- Requisitos de las personas beneficiarias**

El régimen de las presentes subvenciones será de aplicación exclusivamente para aquellas empresas y personas trabajadoras por cuenta propia que cumplan los siguientes requisitos:

1. Que su actividad principal sea comercial, hostelera o de servicios; y que estén dados de alta en el padrón del IAE de Errenteria o el establecimiento principal abierto al público de su actividad esté situado en Errenteria.

Se entenderá por actividad comercial a los efectos de lo dispuesto en esta convocatoria, la puesta a disposición del mercado de productos o mercancías adquiridas con esa finalidad, sin modificación sustancial de las mismas, así como la venta de bienes de consumo final realizada directamente por los productores/as agrícolas y ganaderos, entendiéndose por tales bienes aquellos no destinados a integrarse en procesos de producción, comercialización o prestación de servicios a terceros, así como la prestación de servicios cuando se oferten al mercado con carácter final.

1.1. Además, podrán ser beneficiarios/as la venta ambulante o no sedentaria, cuyos titulares deberán tener domicilio fiscal en el municipio de Errenteria y los servicios de autotaxi, cuando su titular tenga la licencia municipal de Errenteria.

1.2. También podrán ser beneficiarios las asociaciones constituidas formalmente que representen únicamente a negocios dados de alta en el IAE de Errenteria, para actuaciones

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

jarduketetarako.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira udalaren laguntza izendunen baten onuradun diren irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta/edo elkarteak.

1.1 eta 1.2 puntuetako onuradunei ez zaie 5. puntua aplikatuko.

2. Jarduera nagusia I. Eranskinean aipatutako JEZko epigraferen bati egokitzea.

3. Urtean 1.000.000 € edo gutxiagoko fakturazioa izatea, BEZik gabe

Fakturaziotzat hartuko da haien jardueraren guztizko negozio-zifra edo haien jardueraren ondoriozko guztizko salmenta-bolumena.

Onuradunak JEZ zergaren epigrafe bat baino gehiagotan izena emanda badaude, fakturazio datuek erreferentzia egingo diete jarduera guztietan sortutakoaren baturari.

Onuradunek jarduerarekin ez badute urte osoa osatu, benetan egindako tartearekin proportzionalki kalkulatuko da urtea.

4. Baldintzak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea edo haiek partaidetzarik ez izatea.

5. Gutxienez jendaurreko negozio-lokal bat izatea.

6. Zergetako, Gizarte Segurantzako eta Errenteriako Udalarekiko betebeharrak egunean izatea, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko adierazitako debekuren batean ez egotea.

realizadas como asociación.

Quedan expresamente excluidas de esta convocatoria las entidades y/o asociaciones sin ánimo de lucro, que ya sean beneficiarias de alguna ayuda nominativa del ayuntamiento.

Para los/as beneficiarios/as de los puntos 1.1 y 1.2. el punto 5 no será aplicable.

2. Que la actividad principal corresponda alguno de los epígrafes del IAE relacionados en el Anexo I.

3. Que tengan una facturación anual igual o inferior a 1.000.000 euros, IVA excluido.

Se entenderá por facturación la cifra total de negocios o volumen total de ventas derivada de su actividad.

En el caso de que los beneficiarios se hallen inscritos en más de un epígrafe del IAE, los datos de facturación se referirán a la suma de lo generado en todas las actividades.

En el caso de las personas beneficiarias que no hayan completado una anualidad entera de actividad, se elevará proporcionalmente al año el intervalo efectivamente realizado.

4. Que no se hallen vinculadas o participadas por empresas que no reúnan los requisitos anteriores.

5. Que dispongan de, al menos, un local de negocio abierto al público.

6. Que se hallen al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la seguridad social y con el Ayuntamiento de Errenteria, y que no se encuentran incursos en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de beneficiaria señaladas en el artículo 13 de la Ley

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

General de Subvenciones.

7. Izapide hori behar duten obren kasuan, dagokion udal-lizentzia edo -baimena eskatu izana. Eta, zehazki, eskabidea terrazetako altzarietan inbertitzeari edo terrazak estaltzeari buruzkoa bada, indarrean izan beharko dute lurzoru publikoan terrazak instalatzeko lizentzia.

7. En el caso de obras para las que sea necesario dicho trámite, que hayan solicitado la licencia o autorización municipal correspondiente. Y concretamente si la solicitud se refiere a inversión en mobiliario de terrazas o a la cobertura de terrazas, deberán tener vigente la licencia de instalación de terrazas en suelo público.

**5.- Diruz lagun daitezkeen gastuak**

**5.- Gastos subvencionables**

Deialdi honi dagokionez, diruz lagundu ahal izango dira 2021eko irailaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean egindako honako gastu hauek, baldin eta jarduera ekonomikoa eraldaketa digitalera egokitzeko eta/edo trantsizio ekologikorako neurriak ezartzeko badira.

A los efectos de esta convocatoria, se consideran gastos subvencionables los siguientes realizados entre el 1 de septiembre de 2021 y el 31 de diciembre de 2022, siempre que estén dirigidos a adecuar la actividad económica a la transformación digital y/o la transición ecológica.

**5.1. Eraldaketa digitala**

**5.1. Transformación digital**

Diruz lagundu daitezkeen lerroek enpresaren digitalizazio-maila ezartzeko edo horretan aurrera egiteko beharrezkoak diren hainbat ekintza hartuko dituzte barne, dela kudeaketa hobetzeko eta optimizatzeko, dela salmenta-kanalak zabaltzeko, dela bezero potentzial berriak bilatzeko:

Las líneas subvencionables abarcarán distintas acciones necesarias para implantar o avanzar en el grado de digitalización de la empresa, bien sea para mejorar y optimizar la gestión, ampliar los canales de venta o buscar nuevos clientes potenciales:

- Ekipoak: saltokiko terminalak (ST) erostea, produktuak kodetzeko eta optikoki irakurtzeko sistemak, inprimagailuak, interneterako sarbidea instalatzea, ordenagailuak, tableta, smartphonea, etab.

- Programa informatikoak: sistema eragileak, bulegotika-paketeak, posta elektronikoa, kudeaketa-aplikazioak, bezeroen kudeaketa, komunikazio seguruak, faktura elektronikoa, sinadura digitala... Ticket BAI instalatzeko programa ere sartzen da.

- Equipos: adquisición de Terminal Punto de Venta (TPV), sistemas de codificación y lectura óptica de productos, impresoras, instalación de acceso a internet, ordenadores, Tablet, smartphone, etc.

- Programas informáticos: sistemas operativos, paquetes de ofimática, correo electrónico, aplicaciones de gestión, gestión de clientes, comunicaciones seguras, factura electrónica, firma digital...también se incluye el programa para la instalación de Ticket BAI.

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

- Interneten oinarrizko presentzia izatea: web-orriak sortzea edo berritzea, sare sozialetan profilak sortzea edo berritzea, datuak analizatzeko tresnak, webgunea Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrera egokitzea eta zibersegurtasuna.

- Presentzia aktiboa Interneten: marketin digitaleko plan bat egitea, marketin digitaleko zerbitzuak, online publizitate-kanpainak, bilatzaileetan posizionatzea eta sare sozialak, eta online salmentarako eta merkataritza digitalerako plataformak sortzea. Komunikazio digitaleko zerbitzuak ere barne hartzen dira, hala nola eduki digitalak sortzea edo edukiak webgunean, sare sozialetan eta newsletter bidez kudeatzea eta argitaratzea.

- Digitalizaziori buruzko prestakuntza: enpresaren digitalizazioarekin lotutako edozein alderdiri buruzko trebakuntza-ikastaroak egitea (bulegotika, kudeaketa-tresnak, bezeroekiko komunikazioa, berariazko kanpainak).

- Eraldaketari eta digitalizazioari buruzko aholkularitza: digitalizazio-aholkularitzak kontratatzea, negozioarentzat digitalizazio mota egokiena zein den aholkatzeko; marketin digitaleko kanpaina espezifikoak, bezero potentzialak (gazteak, adibidez) erakartzeko eta haiekin elkarreraginean aritzeko.

**5.2. Trantsizio ekologikoa**

Atal honetan, honako hauek izango dira dirulaguntza jaso dezaketen ildoak:

**Energia aurreztea eta efizientzia energetikoa**

- Energia-auditoretzak: auditoretza energetikoak edo energia aurrezteko planak egitea, merkataritza-jardueran egin daitezkeen hobekuntzak identifikatu eta planifikatzeko.

- Presencia básica en internet: creación o renovación de páginas web, creación o renovación de perfiles en redes sociales, herramientas de analítica de datos, la adaptación de la web al Reglamento general de protección de datos (RGPD) y la ciberseguridad.

- Presencia activa en internet: elaboración de un plan de marketing digital, servicios de marketing digital, campañas de publicidad en línea, posicionamiento web y redes sociales, así como la creación de plataformas de venta en línea y comercio digital. También comprende los servicios de comunicación digital como la creación de contenidos digitales o la gestión y publicación de contenidos en la web, en las redes sociales y vía newsletter.

- Formación en digitalización: Realización de cursos de capacitación en cualquier aspecto relacionado con la digitalización de la empresa (ofimática, herramientas de gestión, comunicación con clientes, campañas específicas…).

- Consultoría en transformación y digitalización: Contratación de consultorías de digitalización con el objetivo de asesorar qué tipo de digitalización es la más adecuada para el negocio; campañas específicas de marketing digital para atraer e interactuar con potenciales clientes, como jóvenes, etc.

**5.2. Transición ecológica**

En este apartado las líneas subvencionables serán las siguientes:

**Ahorro y eficiencia energética**

- Auditorías energéticas: La elaboración de auditorías energéticas o planes de ahorro energético con el objetivo de identificar y planificar las mejoras posibles a realizar en la

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

actividad comercial.

- Energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko formakuntzak.

- Formaciones en ahorro y eficiencia energética.

- Energia-komunitateetan edo energia berriztagarriko kooperatibetan parte hartzea: diruz lagundu ahal izango da negozio parte-hartzaileak komunitate edo kooperatiba horiei egiten dien hasierako ekarpena.

- Participación en comunidades energéticas o cooperativas de energía renovable: será subvencionable la aportación inicial que el negocio participante realice a estas comunidades o cooperativas.

- Energia-eraginkortasuna hobetzen duten obrak: lokalen obrak eta/edo egokitzapen-proiektuak, energia-eraginkortasunaren eskakizunak gutxienez %30ean hobetzen direla ziurtatzen dutenak.

- Obras que mejoren la eficiencia energética: Gastos de obra y/o proyectos de adecuación de los locales que certifiquen un mínimo de mejora en los requisitos de eficiencia energética del 30%.

- Klimatizazio eraginkorra eta eguzki-kontroleko elementuak: klimatizazio- eta aireztapen-instalazioen eraginkortasuna hobetzea (presentzia-detektagailuak, termostatoak instalatzea, aerotermia, etab.), eta, hala badagokio, A+, A++ eta A+++, edo A, B, C etiketa energetikoa izatea; halaber, eguzki-kontroleko elementuak, hala nola toldoak edo eguzki-kontroleko xaflak.

- Climatización eficiente y elementos de control solar: Mejora de la eficiencia de las instalaciones de climatización y ventilación (detectores de presencia, instalar termostatos, aerotermia,…) y que, en su caso, contengan las etiqueta energética de A+, A++ y A+++, o A, B, C. Así como elementos de control solar, como pueden ser los toldos o láminas de control solar.

- Kontsumo txikiko argiztapena eta argiteria: barruko eta/edo kanpoko argiztapen-ekipoak instalatzea edo ordeztea, errotuluak, toldoak eta erakusleihoak barne, eta horien ordez, LED teknologia eta lotutako kontrol-elementuak erabiltzen dituzten beste batzuk jartzea . LED argiek eraginkortasun handiko etiketa energetikoa izan beharko dute (A+, A++ eta A+++, edo A, B, C).

- Iluminación y alumbrado de bajo consumo: Instalación o sustitución de equipos de iluminación interior y/o exterior, incluidos rótulos, toldos y escaparates, por otros que utilicen tecnología LED y los elementos de control asociados. Las luces LED deberán contener la etiqueta energética de alta eficiencia (A+, A++ y A+++, o A, B, C).

- Energetikoki eraginkorragoa den ekipamendua berritzea: ostalaritzan eta elikagai-saltokietan kontserbatzeko eta izozteko altzariak eta ekipamendua berritzea, baldin eta A+, A++ eta A+++, edo A, B, C kalifikazioa badute. Kalifikazio energetikoko sistemarik ez duten ekipoak diruz lagundu ahal izango dira alderdi hori egiaztatzen

- Renovación de equipamiento energéticamente más eficiente: Renovación del equipamiento y de los muebles frigoríficos de conservación y congelación en hostelería y comercios de alimentación, siempre que se pueda acreditar una calificación de A+, A++ y A+++, o A, B, C. Aquellos equipos para los cuales no exista

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

badute eta aurreikusitako ekipo berriak ordezkatutakoa baino eraginkortasun energetiko handiagoa duela justifikatzen badute.

sistema de calificación energética podrán ser subvencionables si acreditan este aspecto y justifican que el nuevo equipo previsto tiene una eficiencia energética superior al sustituido.

- Ekipamendua eta klimatizazioa hobetzeko eta berritzeko ataletan, 2021-2022 urteetan sortutako saltokietarako, hasierako inbertsioa diruz lagunduko da.

- En los apartados de mejora y renovación de equipamiento y climatización, para los comercios creados en el 2021-2022, se subvencionará la inversión inicial.

- Ibilgailu motordunetik ibilgailu elektriko edo entxufagarrira aldatzea taxilarien kasuan.

- Sustitución de vehículo de motor a vehículo eléctrico o enchufable en el caso de los taxistas.

**Azken miliako banaketa jasangarria**

**Reparto sostenible de última milla**

Diruz lagunduko dira produktuak kontsumitzaileari modu jasangarrian banatzea helburu duten ekintzak:

Se subvencionarán aquellas acciones que vayan encaminadas a promover un reparto sostenible de los productos a la persona consumidora:

Azken kontsumitzaileari produktuak modu jasangarrian banatzeko ibilgailuak erostea, edo gehienez ere 6 hilabetez alokatzea.

-La adquisición o el alquiler durante máximo 6 meses de vehículos para el reparto sostenible al consumidor final.

- Banaketa jasangarriko enpresak kontratatzea gehienez ere 6 hilabetez. Kasu horretan, kontratatutako enpresek ETE izateko baldintza bete beharko dute.

- La contratación de empresas de reparto sostenible durante máximo 6 meses. En este caso, las empresas contratadas deberán reunir el requisito de PYME.

- Banaketa jasangarriko sistema bat abian jartzeko bideragarritasun planak.

-Estudios de viabilidad para la puesta en marcha de un sistema de reparto sostenible.

**Ekonomia zirkularra**

**Economía circular**

Ekonomia zirkularraren arloan (hondakinak, materialak, ura, hurbiltasuna) kontzeptu hauek lagunduko dira diruz:

En materia de economía circular (residuos, materiales, agua, proximidad) se subvencionan los siguientes conceptos:

- Negozioaren aztarna ekologikoa (ez soilik energetikoa) murrizteko beharrezko azterlanak edo analisiak.

-Estudios o análisis necesarios para reducir la huella ecológica del negocio (no sólo energética).

- Hurbileko produktuak edo aztarna ekologiko txikiagokoak eta/edo kontsumo arduratsuko produktuak sartzeko azterketak edo analisiak.

-Estudios o análisis para incorporar producto de proximidad o productos con una menor huella ecológica y/o consumo responsable.

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

- Establezimenduko packaginga berritzea material birziklatu eta/edo birziklagarriekin.

- Hondakinak murrizteko eta kudeatzeko neurriak ezartzea.

- Proiektu pilotuak eta hiri-ekonomiako eragileen arteko lankidetza-proiektuak.

- Ekonomia zirkularraren arloko formakuntzak (hondakinak murriztea eta kudeatzea, sukaldean gertuko elikagaiak eta/edo elikagai ekologikoak erabiltzea, jardunbide egokiak, etab.).

- Negozioaren eraldaketa ekologikorako bestelako laguntza tekniko eta aholkularitzak.

**Kontsumo arduratsu eta kontzientea**

Kontsumo arduratsu eta kontzientea sustatzera bideratutako dinamizazio-ekintzak diruz lagunduko dira, hiri-ekonomiarekin lotu nahi diren jasangarritasun-balioak eta bidezko merkataritzaren balioak sustatzeko helburuarekin:

- Negozioaren jasangarritasun- eta/edo erantzukizun-balioen komunikazio- eta/edo publizitate-kanpainak.

- Produktuen informazioa eta haien hurbiltasun-balioak, ziurtapena, aztarna ekologikoa, ohitura osasungarriak eta abar zabaltzeko ekintzak.

- Jasangarritasunaren eta gizarte-erantzukizunaren arloan balio erantsia duten produktuen erakustaldiak eta/edo dastaketak.

**Hiri-paisaia hobetzea**

-Renovación del packaging del establecimiento con materiales reciclados y/o reciclables.

-Implementación de medidas de reducción y gestión de residuos.

-Proyectos piloto y de cooperación entre agentes de la economía urbana.

- Formaciones en materia de economía circular (reducción y gestión de residuos, manejo de alimentos de proximidad y/o ecológicos en la cocina, buenas prácticas, etc.)

-Otras asistencias técnicas y asesoramiento en la transformación ecológica del negocio.

**Consumo responsable y consciente**

Se subvencionarán acciones de dinamización encaminadas a promover un consumo responsable y consciente, con la intención de promover los valores de sostenibilidad y del comercio justo con los que se quiera vincular la economía urbana:

- Campañas de comunicación y/o de publicidad de los valores de sostenibilidad y/o responsabilidad del negocio.

- Acciones que amplíen la información de los productos y sus valores de proximidad, certificación, huella ecológica, hábitos saludables, etc.

- Demostraciones y/o degustaciones de productos con valor añadido en materia de sostenibilidad y responsabilidad social.

**Mejora del paisaje urbano**

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

Hiri-ekonomiako enpresek garatutako ekintzak diruz lagunduko dira, baldin eta hiri-paisaiaren kalitatea hobetzen badute, honako hauek egiten direnean:

- Terrazak berritzea edo berriak sortzea, irizpide estetiko-ingurumen, segurtasunekoak, irisgarritasunekoak eta/edo zarata murrizteko neurriak ezartzen badituzte.

- Erakusleihoak, toldoak eta errotulu komertzialak irizpide estetiko-ingurumenekin berritzea.

Se subvencionarán acciones desarrolladas por empresas de la economía urbana que generen una mejora en la calidad del paisaje urbano cuando se realice la:

- Renovación o creación de nuevas terrazas cuando incorporen criterios estéticos - ambientales, de seguridad, accesibilidad y/o implementen medidas para reducir el ruido.

- Renovación de escaparates, toldos y rótulos comerciales con criterios estéticos-ambientales.

**5.3. Diruz lagundu ezin diren gastuak**

Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

- Hornitzailea enpresa eskatzailearekin lotura duen enpresa bada.
- Balio erantsiaren gaineko zerga, berreskuratu edo konpentsatzeko aukera badago.
- Gastu orokor gehigarriak, hala nola administrazio-gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezularitza, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...)
- Bidaien, otorduen eta mantenuaren gastuak.
- Finantza-gastuak.
- Aurreikusitako hornitzaile potentzialik adierazten ez duten gastuak edo inbertsioak.
- Telebisten erosketa

**5.3. Gastos no subvencionables**

No serán objeto de subvención los siguientes gastos:

- Cuando el proveedor sea una empresa vinculada a la empresa solicitante.
- El impuesto sobre el valor añadido cuando sea susceptible de recuperación o compensación.
- Gastos generales suplementarios tales como gastos de administración, dietas, consumos generales (energía, agua, mensajería, correo, limpieza, telefonía, seguridad, material de oficina...).
- Gastos de viajes, comidas y manutención.
- Gastos financieros.
- Gastos o inversiones en los que no se indique un potencial proveedor previsto
- La adquisición de televisores.

**6.- Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honetan ezarritako laguntzak honela lagunduko dira diruz:

**6.- Cuantías de la subvención.**

Las ayudas establecidas en esta convocatoria se subvencionarán de la siguiente manera.

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

### 6.1. Eraldaketa digitala

**Eraldaketa digitalaren atalean**, diruz lagundutako ehunekoa negozioaren digitalizazio-mailaren araberakoa izango da:

- 0 maila: ez dute negozioa kudeatzeko baliabide informatikorik, eta salmenta-kanal digitalak ez dituzte garatuta. Gastu onargarriaren % 100 lagunduko da diruz.

- 1. maila: web-orria eta sare sozialak bezalako kanal digitalak garatuta dituzte, baina ez dituzte erabiltzen edo modu mugatuan erabiltzen dituzte. Negozioaren kudeaketak ez ditu oinarrizko bitarteko digitalak. Gastu onargarriaren % 75 lagunduko da diruz.

- 2. maila: saltzeko kanal digitalak garatuta dituzte eta modu aktiboan erabiltzen dituzte, marketin-kanpainak eginez eta/edo kontsumitzaileari kanal horien bidez zerbitzua emanez. Negozioaren kudeaketa sistema informatikoen bidez egiten da. Gastu onargarriaren % 50 lagunduko da diruz.

- 3. maila: kanal digitalak garatuta dituzte eta aktiboki erabiltzen dituzte. Gainera, online salmenta ezarrita dute. Negozioaren kudeaketa sistema informatikoen bidez egiten da. Gastu onargarriaren % 25 lagunduko da diruz.

TicketBairi dagokionez, %100ean lagunduko da diruz, baldin eta:

- Eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiaren TicketBAIko diru-laguntza eman zaio, 2022ko maiatzaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (81. zk), eta 2021eko irailaren 14koan (176. zk), eta horien aldaketa argitaratu da 2021eko urriaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (206. zk) argitaratua, 1000 eurotik aurrera egindako gehiegizko gastuarengatik.

### 6.1. Transformación digital

En el **apartado de digitalización** el porcentaje subvencionado irá en función del grado de digitalización del negocio:

- Grado 0: No disponen de medios informáticos para la gestión del negocio, ni tienen desarrollados los canales digitales de venta. Se subvencionará el 100% del gasto admisible.

- Grado 1: Tienen desarrollados los canales digitales como la página web y redes sociales pero no hacen uso o lo usan de forma limitada. La gestión del negocio carece de los medios digitales básicos. Se subvencionará el 75% del gasto admisible.

- Grado 2: Tienen desarrollados los canales digitales para la venta y hacen uso activo de ellos, realizando campañas de marketing y/o dando servicio al consumidor a través de estos canales. La gestión del negocio se realiza a través de sistemas informáticos. Se subvencionará el 50% del gasto admisible.

- Grado 3: Tienen desarrollados los canales digitales y hacen uso activo de ellos. Además, tienen la venta online establecida. La gestión del negocio se realiza a través de sistemas informáticos. Se subvencionará el 25% del gasto admisible.

Respecto al Ticket BAI, se subvencionará el 100% si:

- al solicitante le han concedido la subvención de TicketBAI de la Diputación Foral de Gipuzkoa contemplados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº81 de 2 de mayo de 2022, n.º 176 de 14 de septiembre de 2021 y la modificación de las mismas, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 27 de octubre de 2021 (número 206), por el exceso de gasto realizado a partir de

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

1000€.

- Eskatzaileari aipatutako diru-laguntza ukatu zaio edo ez du eskatu, Ticket Bai kontzeptuagatik egindako gastuarengatik.

- al solicitante se le ha denegado la subvención mencionada o no la ha pedido, por el gasto realizado en cuanto al concepto TicketBai.

**6.2. Trantsizio ekologikoa**

**Trantsizio ekologikoaren atalean**, diruz lagundutako ehunekoa gastu onargarriaren % 75 izango da, honako kontzeptu hauetan izan ezik, horiek % 100ean lagunduko baitira diruz:

Energia-auditoretzak, energia-komunitateetan edo energia berriztagarriko kooperatibetan parte hartzea, banaketa-sistema jasangarri bat abian jartzeko bideragarritasun-azterlanak, negozioaren aztarna ekologikoa murrizteko beharrezko azterketak edo analisiak, hurbileko produktuak edo aztarna ekologiko txikiagokoak eta/edo kontsumo arduratsuko produktuak sartzeko azterketak edo analisiak eta ekonomia zirkularraren arloko prestakuntzak.

**6.2. Transición ecológica**

En el **apartado de transición ecológica** el porcentaje subvencionado será del 75% del gasto admisible, excepto en los siguientes conceptos, los cuales se subvencionarán al 100%:

Auditorías energéticas, participación en comunidades energéticas o cooperativas de energía renovable, estudios de viabilidad para la puesta en marcha de un sistema de reparto sostenible, estudios o análisis necesarios para reducir la huella ecológica del negocio, estudios o análisis para incorporar producto de proximidad o productos con una menor huella ecológica y/o consumo responsable y formaciones en materia de economía circular.

**6.3. Dirulaguntza handitzea**

Gainera, gastu onargarriaren gaineko ehuneko hori % 10 handitu ahal izango da negozioak honako baldintza hauetatik 2 betetzen baditu, betiere 6.4 puntuan deskribatutako negozio bakoitzeko gehieneko zenbatekoa gainditzen ez badu:

- Norberaren konturako langilea emakumea bada, edo emakumeek % 50etik gorako partaidetza badute sozietatean.

- Establezimendu nagusia ez badago erdigunean, II. eranskineko eremuen zerrendaren arabera.

- Establezimenduak Bai Euskarari ziurtagiria badu.

**6.3. Incremento de la subvención**

Además, el gasto admisible se podrá incrementar en un 10% si el negocio cumple con 2 de los siguientes requisitos, siempre y cuando no supere la cuantía máxima por cada negocio descrito en el punto 6.4.:

- Si la trabajadora por cuenta propia es mujer, o la participación de mujeres en la sociedad es superior al 50%

- Si el establecimiento principal no está situado en la zona centro, según la relación de zonas del Anexo II.

- Si el establecimiento dispone del certificado Bai Euskarari.

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

- Establezimenduak Sanmarko Mankomunitateko kartoi-papera eta beira gaika bereizteko eta birziklatzeko programa batean aktiboki parte hartzen badu.

- Egindako ekintzarako kontratatutako enpresak Oarsoaldean kokatutako enpresak badira, edo kooperatibak zein helburu soziala duten enpresak badira.

- Digitalizazioan, softwarearen ezarpena formatu librekoa bada eta funtzionamenduko hizkuntza euskara izateko aukera gehitzen bada.

- Inbertsioek hobekuntza ekartzea irisgarritasun unibertsalari dagokionez.

- Eskabidearen egunean merkataritza, ostalaritza edo zerbitzuetako eskualdeko zein gremioko elkarte batean izena emanda dagoela egiaztatzen bada.

- Partikularrek elkarrekin proposamenak egitea, sinergiak sortzeko eta emaitza hobeak lortzeko.

- TicketBAI ezartzean, euskaraz ere egiten bada eta erosketa-ticketak euskaraz eman baditzake.

**6.4. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa**

Nolanahi ere, aurreko arauak aplikatu ondoren, eskabide bakoitzeko diruz lagunduko den gehieneko zenbatekoa honako hau izango da modalitate bakoitzerako:

- 1.500 € eraldaketa digitalerako

- 3.500 € trantsizio ekologikoko neurrietan

Edonola ere, bi modalitateetarako dirulaguntza eskatuz gero, negozio bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 4.500€koa izango da.

- Si el establecimiento colabora activamente en un programa de separación selectiva y reciclaje de cartón-papel y vidrio de la Mancomunidad de Sanmarko.

- Si las empresas contratadas para la acción realizada son empresas ubicadas en Oarsoaldea o son empresas cooperativas y/o con un fin social.

- En digitalización, si la implantación de software es de formato libre y se incorpora la opción de que la lengua de funcionamiento sea el euskara.

- Que las inversiones supongan una mejora en términos de accesibilidad universal.

- Si se acredita la inscripción a una asociación tanto zonal como gremial de comercio, hostelería o servicios a la fecha de la solicitud.

- Propuestas en común entre particulares, con el objetivo de crear sinergias y obtener un mejor resultado.

- En la implantación de TicketBAI, si esta también se realiza en euskera y puede emitir los tickets de compra en Euskera.

**6.4. Cuantía máxima de la subvención**

En todo caso, una vez aplicadas las reglas anteriores, la cantidad máxima a subvencionar por cada solicitud será la siguiente para cada modalidad:

- 1.500€ para la transformación digital

- 3.500€ en medidas de transición ecológica

En todo caso, si se solicita la subvención para las dos modalidades la cuantía máxima por cada negocio será de 4.500€

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

**7.- Eskabideak aurkeztea.**

Negozio bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du modalitate bakoitzeko: eraldaketa digitala eta trantsizio ekologikoa.

Negoziotzat hartuko da Identifikazio Fiskaleko Zenbaki (IFZ) beraren pean egindako irabazizko jarduera.

Eskabideak telematikoki aurkeztu ahal izango dira Errenteriako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez edo paperean ZU! zerbitzuaren bidez edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen duen edozein erregistrotan.

Eskabide-eredua Errenteria Udaleko zerbitzu telematikoetan eskura dezakezu.

Eskabide-orriarekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Egiazki egindako gastuen fakturak, eta horiek ordaindu izana adierazten duten ordainagiriak. Fakturek argi identifikatuta jaso beharko dute diruz lagun daitezkeen inbertsio edo aktiboen deskribapena, eta ez da kontzeptu kodifikaturik onartuko. Ordainketetan argi eta garbi identifikatu beharko dira ordainketaren igorlea eta hartzailea.

- Aurrekontu justifikatzailea, inbertsioa oraindik hasi edo amaitu ez denerako.

- Egoki bada;

* burututako lanen dokumentazio grafikoa, euskarri grafikoa, erositako materiala...

* TicketBAI dirulaguntzaren eskaera onesten duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren ebazpena eta/edo hala badagokio, eskatzaileak helburu

**7.- Presentación de solicitudes.**

Cada negocio podrá presentar una única solicitud por cada uno de las modalidades: transformación digital y transición ecológica.

Se entenderá como negocio, la actividad lucrativa realizada bajo un mismo Código de Identificación Fiscal (CIF).

Las solicitudes se podrán presentar por vía telemática a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Errenteria o en papel a través del servicio ZU! o cualquiera de los registros a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015.

El modelo de solicitud se recoge en los servicios telemáticos del Ayuntamiento de Errenteria.

Junto con la solicitud deberá presentarse la siguiente documentación justificativa:

- Facturas de los gastos efectivamente realizados, así como justificantes de abono de las mismas. Las facturas deberán contener la descripción de las inversiones o activos subvencionables claramente identificada, no admitiéndose conceptos codificados. En los abonos deberán quedar claramente identificados el receptor y el emisor del pago.

- Presupuesto justificativo, en el caso de que la acción no se haya iniciado o no haya finalizado todavía.

- En su caso;

* documentación gráfica de las obras realizadas, soportes gráficos, material adquirido...

* la resolución de la Diputación Foral de Gipuzkoa estimando la solicitud de subvención de Ticket BAI y/o en su caso, otras resoluciones

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

bererako jaso dituen diru-laguntzen beste ebazpen batzuk.

de subvenciones que el solicitante haya percibido para la misma finalidad.

* 6.3 atalean deskribatutako alderdiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

* documentación que acredite el cumplimiento de los aspectos descritos en el apartado 6.3.

* deialdi honetan jasotako kasuak egiaztatzeko egokitzat jotzen den beste edozein dokumentu.

* cualquier otro documento que se estime oportuno para acreditar los supuestos recogidos en esta convocatoria.

**Errenteriako Udalak, NISAE datuenbitartekaritza plataforma bidez, deialdianparte hartzeko ondoko datuak egiaztatukoditu. Aurka eginez gero, deialdianeskatutako ziurtagiriak edo tituluakaurkeztu beharko ditu.**

**El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberá aportar las certificaciones o títulos exigidos en la convocatoria:**

**Errenteriako Udalak Foru Ogasunean aurrean eta Gizarte Segurantzarekikoak nire zerga betebeharrak egunean ditudan kontsultatuko du eta horretarako behar den informazioa eskuratuko du.**

**El ayuntamiento de Errenteria procederá a consultar si estoy al corriente de mis obligaciones fiscales ante la Hacienda Foral y frente a la Seguridad Social, así como a obtener la información necesaria a tal efecto.**

**Ez bada baimena ematen goian aipatutako agiri guztiak erantsi beharko dira.**

**Si no se concede la autorización se deberá adjuntar toda la documentación arriba indicada.**

**8.- Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea zabalduko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean, eta amaituko da 2022ko azaroaren 18an.

**8.- Plazo de presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 18 de noviembre de 2022.

**9.- Laguntzak ematea.**

Laguntzak emateko prozedura izango da norgehiagokarik gabea, dirulaguntzaren xedeak eta helburuak ez baitute aukerarik ematen eskaerak objektiboki alderatzeko; horregatik, laguntzak emango dira eskabideak aurkezteko ordenaren arabera.

**9.- Concesión de la subvención.**

El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia no competitiva, dado que el objeto y finalidad de la subvención no permiten la comparación objetiva de las solicitudes; por ello las ayudas se concederán por orden de presentación de las solicitudes.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuetatik edota

Estas subvenciones serán compatibles con cualquier otra subvención, ayuda, ingreso o

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

erakunde pribatuetatik onuradunek xede bererako jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

recurso procedente de otras administraciones públicas, y/o entidades privadas, que para el mismo fin pudieran percibir las entidades beneficiarias.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**10.- Dirulaguntza ordaintzea.**

Dirulaguntza ordainduko da deialdia ebatzi ondoren eta ebazpenean ezarritako epean.

**10.- Abono de la subvención.**

El abono de la subvención se realizará tras la resolución de la concesión y en el plazo en el que se establezca en la misma.

Eskabidearekin batera aurrekontu justifikatzailea bakarrik aurkeztu den kasuetan, dirulaguntza ordaintzeko beharrezkoa izango da aurkeztea egiazki egindako gastuen fakturak eta horiek ordaindu izana egiaztatzen duten ordainagiriak.

En el caso de que con la solicitud solamente se hubiera presentado un presupuesto justificativo, el abono de la subvención estará supeditado a la presentación de las facturas relativas a los gastos efectivamente ejecutados, así como de los justificantes de abono de las mismas.

**11.- Ordainketaren egiaztagiriak aurkeztea**

Ordainketa justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 13an amaituko da.

Justifikazioa ezarritako epeetan aurkezten ez bada, dirulaguntza murriztu egingo da justifikatu gabeko gastuarengatik, edo, hala badagokio, dirulaguntza ezetsi egingo da.

**11.- Presentación justificante de pago**

El plazo de presentación de la documentación justificativa del pago finalizará el 13 de enero de 2023.

La falta de presentación de la justificación en los plazos establecidos será motivo de minoración de la subvención por el gasto no justificado, o en su caso, desestimación de la subvención.

**12.- Erakunde laguntzailea**

Errenkoaldek erakunde laguntzaile gisa jardungo du laguntza honen kudeaketan. Laguntza-eskabidea izapidetzeagatik ez du inolako diru-kopururik kobratuko, ez eta bere jarduera inolako zerbitzuren kontratazioaren baldintzapean jarri ere.

Entitate laguntzaileak, eskaerak izapidetzean,

**12.- Entidad colaboradora**

Errenkoalde actuará como entidad colaboradora en
la gestión de la presente ayuda, y sin cobrar ninguna cantidad por la tramitación de la solicitud de la ayuda ni condicionar su actuación a la contratación de ningún tipo de servicio.

La entidad colaboradora, al tramitar las

ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20

erakundeek baldintzak betetzen dituztela eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dutela egiaztatu beharko du. Hala ez bada, ez du eskaera Errenteriako Udalean aurkeztuko eta eskatzaileari antzemandako akatsa zuzentzeko eskatuko dio, ondoren aurkezteko helburuarekin.

solicitudes, deberá comprobar que las entidades cumplen los requisitos y aportan la documentación exigida. En caso contrario, no presentará la solicitud en el Ayuntamiento de Errenteria y solicitará a la solicitante que subsane el defecto detectado, con el fin de presentarla posteriormente.

**13.- Onuradunen betebeharrak**

**13.- Obligaciones de las personas beneficiarias**

- Laguntzak berariaz diruz laguntzen diren kontzeptu eta zenbatekoetan erabiltzea.

- Emplear las ayudas en aquellos conceptos y cuantías que sean expresamente objeto de subvención.

- Errenteriako Udalak, bere teknikarien bidez, dirulaguntzaren xede diren jarduerak egiaztatzeko egingo dituen jarduketei men egitea.

- Someterse a las actuaciones de comprobación del Ayuntamiento de Errenteria a través de su personal técnico de las actuaciones objeto de subvención.

- Helburu bererako dirulaguntza edo laguntzarik jasoz gero, Errenteriako Udalari horren berri ematea. Horretarako, dirulaguntza horiek eman direla justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta laguntzek gastu bera diruz laguntzen ez dutela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena ere.

- Comunicar al Ayuntamiento de Errenteria la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad presentando la documentación que justifique tal concesión y una declaración responsable de que las ayudas no subvencionan el mismo gasto.

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2022 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

**Nota importante**: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2022. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU2718cf82-0f20-46c3-b386-ead1ff206c20**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***